ASMOZ TA JAKITEZ

ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA

1999 ekaina/junio/juin
Nº 91 zenb.

# Kulturaren munduak Xarritonen obra osoa aintzatetsi zuen

Hazparnen jendez mukuru beteriko Udal areto nagusiak Manuel Lekuona Saria Piarres Xarriton lapurtar idazleari emateko ekitaldia hartu zuen. Idazlearen sorterrian egindako zeremonia hark Udala izan zuen markoa eta bertaraturiko jendetza handiak eman zion lekukotasuna. Ahaide eta adiskideek, bai eta kulturaren munduko hainbat eta hainbat ordezkarik lagundu zuten sariztatua, beren hurbiltzearekin haren lan handia txalotuz.

Izan ere sari horren bidez, intzigarrak estaliriko haritza irudikatzen duen Remigio Mendibururen eskulturak materialki adierazirik, aitortu egiten da euskal kultura ondarearen aldeko obra osoagatik nabarmendu direnen lana. Eta Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorrak, haren baitan erakunde sortzaileez gain Euskal Herriko hainbat zientzia eta kultura erakunde nabarmentzen delarik, gorazarre min hau ekitaldi bakoitzean nori egingo zaion erabakitzen du urteko bere osoko bileretako batean.

Ospakizunaren ondoren, Elkarteak sariztatuari buruz argitaratu duen biobibliografia gelditzen da, bai eta, batez ere, hurrengo urteetarako emankorra aurrikusten den protagonistaren lana.





## Chillidaren curriculumak Arte Plastikoak erasten dizkie El-Euskadiko Kutxa Sariari

"Eduardo Chillidaren sorkuntza prozesuak bikaintasunaren mailarik gorenena erdietsi du", bere obra osoak "Euskal Herria eta munduko kultura garapenaren eragile" gertatu delarik. Urtero bezala, Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa Sariaren epaimahaiak bildu behar izan zuen akta soil baten lerro apurretara saritutakoaren ibilbide zabal-distiratsua. Nolanahi den, haren lorpenak nazioartekoan ezagunak izanik, eta guztiz hurbilerrazak hainbat hiri eta museotan, ongi uler daiteke haren merituen azalpen xehea egitea alferrik izatea orain inoiz baino areago. Hain zuzen ere, saria erabaki zenean Eduardo Chillida Parisen zegoen, bere obrari buruzko erakusketa bat inauguratzeko puntuan.

Epaimahaiak azpimarratu zuenez, "Chillidak, gizakia gizaki denez geroztik, arteaz bere buruari eginiko galderen gaineko hausnarketa sakonak eskaintzen dizkigu". Eskultorea hautatuz, arte plastikoak ageriko indarrez sartu dira golardoa jaso dutenen zerrenda nabarmenean. Sari hau, 1995ean sortu zenetik, hainbat alor desberdinetako curriculumei eman zaie, hala nola Antropologia, Zuzenbidea, Hizkuntzalaritza, Arkeologia edo Estetika. Kultura unibertsalari egindako ekarpenak eta euskal izaeraren barne muinaren zabalkundea bere obran biltzea izan da funtsezko argudioa aurtengo erabakian, nahiz eta, sarituaren jarrera intelektualaz gain, Juan José Goiriena de Gandariasek ezohiko pertsonalitate gisa definitu zuen artistaren izaerak ere eragina izan zuen.

El-ren lehendakaria eta Euskadiko Kutxaren zuzendari nagusia den Juan José Arrietarekin batera, ondoko aditu hauek osatu zuten epaimahaia: Miren Azkarate Euskal Herriko Unibertsitateko Irakaslegorako errektoreordea, Rosa Miren Pagola Deustuko Unibertsitateko Euskara errektoreordea, Manuel Casado Nafarroako Unibertsitateko errektoreordea, Michelle Mestrot Paueko Unibertsitateko irakaslea, Pedro Aparicio Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketarako errektoreordea, Jesús Garmendia Mondragón Unibertsitateko zuzendaria eta Pedro Miguel Etxenike, zientzia ebaluaketan aditu gisa.




EUSKO
IKASKUNTZA
INTERNET

Web general: **suse00.su.ehu.es**
Euskonews & Media: **www.euskonews.com**

## NOUVEAUX MEMBRES

**Eusko Ikaskuntza.** BULLETIN D'INSCRIPTION

Adhérer à Eusko Ikaskuntza c'est la posibilité de rencontrer les meilleurs moyens pour travailler pour notre culture. Remplir le coupon joint et l'envoyer dans un des bureaux de la Société. Nous rentrerons rapidement en contact avec vous.

Nom.............................Prénom.............................
Adresse.............................Code Postal.............................
Ville.............................Téléphone.............................

**Eusko Ikaskuntza:** FACULTE PLURIDISCIPLINAIRE.
29-31, cours du Comte de Cabarrus.
64100 BAIONA.

**Les Sections d'EI-SEV:**
anthropologie, arts plastiques, sciences naturelles, sciences économiques, cinématographie, droit, education, folklore, his-toire, langue/ littérature, moyens de communication, musique, préhistoire/ archéologie, sciences médicales, sciences physiques et mathématiques

**Cotisations:** 200 Frs. pour les membres ordinaires. 50 Frs. pour les membres étudiants.



## Expertos analizan la motivación de resoluciones judiciales

Un nutrido público siguió las intervenciones de la jornada de estudio que, organizada por Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos con el patrocinio de la viceconsejería de Justicia del Gobierno Vasco y en colaboración con el Colegio de Abogados de San Sebastián, se desarrolló durante pasado día 14 de mayo en la sede de esta última entidad profesional, bajo el título "Valoración de la prueba y motivación de resoluciones judiciales". Tras la apertura del programa, que corrió a cargo de Abel Muniategi, viceconsejero de Justicia del Gobierno Vasco, y del presidente de la Sección de Derecho de EI-SEV, José Manuel Castells, intervinieron en calidad de ponentes Miguel Ayuso Torres, letrado del Tribunal Supremo y profesor del ICADE; Jesús Fernández Entralgo, magistrado de la Audiencia Provincial de Madrid; Juan Igartua Salaverria, profesor de la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea; Luis Maldonado Guzmán, abogado y profesor de la Facultad Eugenio M. de Hostos de Mayagüez (Puerto Rico); Ernesto Martínez Díaz de Guereñu, profesor de la Universidad de Deusto; y Michele Taruffo, abogada y profesora de la Universidad de Pavía (Italia).




## Juantxo Agirre, nuevo presidente de Prehistoria-Arqueología

Finalizado el mandato de Alvaro Arrizabalaga, los miembros del área de Prehistoria-Arqueología de Eusko Ikaskuntza eligieron, el pasado 5 de junio, a Juantxo Agirre Mauleón como nuevo presidente de la Sección. Licenciado en Geografía e Historia y máster en Patrimonio Arqueológico y Artístico por la Universidad del País Vasco, Agirre ha dirigido en los últimos años diversas excavaciones arqueológicas, entre ellas las realizadas en San Esteban de Laskoain, en el casco histórico de Tolosa y en el Palacio Igartza de Beasain. Ha formado parte, asimismo, de los equipos ejecutores de los Inventarios del Patrimonio Histórico Industrial y del Patrimonio Histórico Arqueológico, llevados a cabo por encargo del Gobierno Vasco. Su experiencia docente se concreta en un buen número de cursos impartidos, entre otros centros, en la Universidad Vasca de Verano, la Fundación Emilio Botín, la Universidad de Deusto, la Escuela Superior de Arquitectura de San Sebastián o en la unidad docente de Medicina Legal de la UPV-EHU. En colaboración con la Sociedad de Ciencias Aranzadi y como coordinador de los campos de trabajo Gaztekutxa, el nuevo presidente de la Sección ha sido responsable técnico de la investigación y recuperación de numerosos elementos patrimoniales de Gipuzkoa: señalización de decenas de monumentos megalíticos, recuperación del entorno del yacimiento prehistórico de la cueva de Lezetxiki, estudio de la tejería de Altzibar y de la ermita de Ziprio, etc.

**Ampliado el plazo en Educación**
En proceso de renovación de su presidencia se encuentra también la Sección de Educación. La Junta Permanente de EI-SEV aprobó, en su sesión del pasado 28 de mayo, ampliar el plazo de presentación de candidaturas hasta el próximo 17 de agosto.

## Curso de Derecho para alumnos de tercer ciclo y profesores en formación

Organizado por la RIEV en colaboración con la Sección de Derecho de EI-SEV y del Instituto Internacional de Sociología Jurídica, el programa *"Oñatiko Unibertsitatea"* está dirigido a profesores en formación y alumnos de tercer ciclo, y se desarrollará entre los días 15 y 25 de julio. El curso, que dirige el catedrático Gregorio Monreal y en el que participarán como docentes expertos de varias universidades europeas, estará dividido en cinco apartados: *"Metodología científica"* (15-18 de julio); *"De la teoría del Derecho a la teoría de la argumentación jurídica"* (19-21 de julio); *"La enseñanza del Derecho en Francia, Italia, Alemania y Reino Unido"* (23 de julio); *"Tendencias y perspectivas de las principales disciplinas jurídicas"* (22 y 24); y *"Utilización de las lenguas en las Facultades de Derecho. Problema del bilingüismo castellano-euskara: líneas distintas o enseñanza en las dos lenguas"* (25 de julio).

**Patrocinan**

*el programa las viceconsejerías de Justicia, y de Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, así como el Ayuntamiento de Oñati.*

# Egutegia Calendario Agenda

*Irailaren 30era arte*
**Urrutiko masterrak. Izen emate epeak**

Irailaren 30era arte dago irekita izena emateko epea Ingurugiro Zuzenbidean-MIDA, Nazioarteko Merkataritzan-MICI eta Europar Batasuneko Zuzenbidea eta Ekonomian -MIDEC Elkarreraginezko Urrutiko Masterretan datorren ikasturtean esku hartzeko. Matrikulazioa urriaren 1a eta 15a arteko egunetan egingo da.

Programa hauetako idazkaritza Bulego Nagusietan egarri bada ere, interesatuek Elkartearen edozein egoitzatan eskuratu dezakete informazio osagarria, Eusko Ikaskuntzaren web orrialdeetara ere jo dezaketelarik:

**http://suse00.su.ehu.es/MIDA**
**http://suse00.su.ehu.es/MICI**
**http://suse00.su.ehu.es/MIDEC**

Informazioa posta elektronikoz jaso nahi izatekotan, ondoko helbide hauetara zuzendu daitezke eskaerak:

**MIDA@sk.ehu.es** (Idazk.: Pilar Díez Arregi)
**MICI@sk.ehu.es** (Idazk.: Izaskun Larrañaga)
**MIDEC@sk.ehu.es** (Idazk.: Koro Garmendia)

## Beca para EI-SEV en Navarra

Eusko Ikaskuntza convoca una beca de acuerdo con las bases que se detallan a continuación:

**Objeto**
La beca está destinada al desarrollo de tareas en la Oficina de EI-SEV en Navarra.

**Candidatos**
Los aspirantes deberán ser socios de EI-SEV o solicitar su ingreso en la Sociedad en el momento de solicitar la beca. Los solicitantes, que deberán tener conocimientos de administración y de informática, habrán de acreditar su dominio del euskara. Se valorarán entre los candidatos la preparación en los idiomas francés e inglés, la capacidad organizativa y para el trato personal, así como los conocimientos en materia de autoedición.

**Duración e importe**
El trabajo se prolongará por espacio de un año a partir del día 1 de septiembre de 1999. El importe bruto de la ayuda ascenderá a 1.200.000 pesetas.

**Documentación y plazo**
Los interesados pueden presentar sus currículos en cualquiera de las Oficinas de Eusko Ikaskuntza antes del día 15 de julio de 1999.

# Journée pour etudier la personnalité de Goyheneche

**Eusko Ikaskuntza**

*a reconnu la contribution scientifique d'Eugène Goyheneche, à la culture basque en lui attribuant, en 1989, le prix Manuel Lekuona.*

C'est à l'occasion du dixième anniversaire de sa mort, que la commune d'Ustaritz accueillera les 19 intervenants du colloque organisé par Eusko Ikaskuntza pour honorer la mémoire du grand historien, bascologue et scientifique Eugène Goyheneche. Durant toute une journée, 19 spécialistes aborderont des sujets très divers. Le colloque se déroulera le samedi 2 octobre, dans une salle municipale d'Ustaritz, salle Lapurdi.

L'ouverture aura lieu à 9 h30 par une présentation d'une vidéo sur Eugène Goyheneche, par le président d'Eusko Ikaskuntza Iparralde, Jean Fagoaga et le maire d'Ustaritz, Bernard Auroy.

Suivront les conférences de Jean Claude Larronde, *"Eugène Goyheneche, jeune militant basque à Paris. 1932-1936"*; Maité Lafourcade, *"L'enquête de 1311"*; Ricardo Cierbide, *"Anthroponymie navarraise au Moyen Age à propos d'un texte de 1283 par J.M. Lacarra"*; Jean Haritschelhar, *"Eugène Goyheneche et le Bulletin du Musée Basque"*; Mikel Duvert, *"Jacques Duber, un maître-charpentier de maisons et expert-juré de la ville de Bayonne au XVIIème siècle"*; Txomin Peillen, *"Jabetasunetik era bilerara: Betsula"*; et Xarlex Videgain, *"Les apellations populaires basques des contrats de cheptel (bigodain, gozorat)"*.



L'après midi, les assistants pourront apprécier les travaux de Jon Arrieta, *"¿Por qué cita Acursio a los vascones en su Magna Glossa?"*; Patri Urkizu, *"Bernard Lehete, Eustorg de Beaulieu eta Bernard Detchepare Errenazimenduan"*; Endrike Knörr, *"Zenbait ponteizen eta deitura Araban. XV.-XVI. mendeak"*; Piarres Charritton, *"Luxe et Montmorency"*; Xipri Arbelbide, *"Californiako Eskual Herria aldizkaria"*; Manex Goyheneche, *"Dominque Garat"*; Aurelia Arkotxa, *"Itsas kantuak XVII. mendean"*; Natalie Morel Borotra, *"La chaconе: questions autour d'une éventuelle éthymologie basque"*; Fermín Arkotxa, *"Augustin Chaho et l'Eglise"*; et Thyerry Truffaut, *"Le comité Ibañeta"*. On peut s'inscrire pour participer à cette journée à Eusko Ikaskuntza (Faculté Pluridisciplinaire, bureau 316) à Bayonne.

# Barrokoa aztergai Arteari buruzko hirugarren jardunaldietan

Aurreko bi egitarauen emaitza bikainak eta berorien zientzia-maila nabarmenak ikusita, hirugarren jardunaldi batzuen antolaketari ekin dio Eusko Ikaskuntzaren Arte Plastikoak eta Monumentalak Sailak, aldi honetan Barrokoari eskainiak. Izan ere, euskal arteari buruzko ikerlan eta ekarpen berriak ugaritzen ari diren unean gai honen inguruko ezagupenak eguneratze eta berrikustearen garrantziaz jabeturik, sekuentzia kronologikoaren arabera biurtean behin burutzeko biltzar sorta aurrera eramateko konpromezua hartu zuen bere egunean EI-ko talde honek, lehenengo saioen aztergaiak Erdi Aroa eta Berpizkundea izan direlarik.

Aurreko bi emanaldien ildoari jarraituz, txostenak eta komunikazioak izango dira antolakuntzaegituraren oinarri. Txostenak ospe aitortuko hainbat adituk hartuko dituzte beren gain, ondoko arlo nagusi hauen inguruan: Euskal Herriko Arte Barrokoaren arazoak kronologia eta historiografiari dagokienez; erlijio-arkitektura; arkitektura zibila; eskultura; pintura; grabatua; eta dekorazio-arteak. Beti bezala, aktak argitaratzeaz gain, gaiari dagokion bibliografia eguneratua plazaratuko du Eusko Ikaskuntzak jardunaldietan bertan.

### Ikerlanak aurkezteko epea

Barrokoaz bultzatzen ari diren ikerlan berriak ezagutaraztea da komunikazioen xedea eta txosten bakoitzak sorturiko alorretan kokatuko dira.

Esku hartu nahiko luketen ikertzaileek ekainaren 30a baino lehen jakinarazi beharko dituzte beren lanen izenburuak. Komunikazioen testuak antolatzaileei helarazteko, ordea, zenbait hilabeteko tartea izango dute, epea azaroaren 30ean ezarri baita, beti ere zientzia batzorde batek aztertuko dituela.

### Film-sorta

Donostiako Kultura Patronatuaren lankidetzaz prestaturiko garai horri dagokion film-sorta baten proiekzioak eta Azpeiti alderako bisitaldiak osatuko dute egitaraua, bazkide eta bazkide ez diren guztiei eskaintza erakargarri eta zabala luzatuz.

Jardunaldien irakas-balioa kontuan hartuko da aldi honetan ere kredituak lortzerakoan.



# El-SEV trasladó a Oxford su debate sobre la era digital

Los horizontes abiertos por la incorporación de nuevos soportes a la transmisión del conocimiento vienen siendo objeto de estudio por parte de Eusko Ikaskuntza durante los últimos años. La Sociedad ha dedicado no pocos esfuerzos al examen de los fenómenos aparejados a la denominada era digital, esfuerzos que han quedado patentes en múltiples actividades, entre ellas el XIV Congreso de Estudios Vascos, desarrollado simultáneamente en cinco ciudades. Esta vez ha sido el campus de la prestigiosa universidad británica de Oxford el marco elegido para volver a incidir en el análisis de aspectos relacionados con las nuevas tecnologías de la información. La institución académica acogió un seminario los pasados 13 y 14 de mayo, en el que, entre otros expertos, tomaron parte Thaddeus Lippinski y Stuart Lee -en la imagen de la derecha, junto al presidente de la Sección de Medios de Comunicación de El-SEV, Javier Díaz Noci-. En la fotografía superior, Andoni Alonso, Díaz Noci, Pilar Díez e Isabel Hernando, junto a dos de los profesores inscritos en las jornadas.







**Bizkaiko Udaletan.** *Irudian agertzen diren Iñigo Lasuen bertako alkatea eta Anton Erkoreka Eusko Ikaskuntzaren Bizkaiko lehendakariordea izan ziren maiatzaren 10ean Otxandioko Udala eta EI-ren arteko hitzarmena izenpetu zuten ordezkariak. Bere hortan jarraitzen du, beraz, Elkarteak bere sorreratik bultzatu izan duen ihardue - ra, EI-rekin elkarlanerako bideak gero eta Udal gehiagok ezartzen ari direlarik.*

# La Historia vasca en el umbral del Tercer Milenio

Presentarse como candidato a la presidencia de la Sección de Historia-Geografía supone un reto que exige contar con un proyecto de trabajo meditado, sólido, integrador de los logros alcanzados anteriormente y dinamizador de nuevas metas, capaz de ilusionar a los socios, para, entre todos, trabajando conjuntamente, contribuir a subir un nuevo peldaño en el conocimiento científico de la Historia vasca y, posteriormente, transmitirlo a la sociedad. El proyecto con el que presento mi candidatura atenderá a los siguientes planteamientos. Desarrollar una labor continuista y de consolidación de los logros alcanzados en los últimos años por anteriores presidentes: se seguirá, por ejemplo, sacando nuevos números de la revista Vasconia y convocando nuevas ediciones de las Jornadas de Historia Local.



**Iñaki Bazan**

*Historia eta Geografia Saileko lehendakaritzarako hautagai bakarra dugu.*

Como Sección Científica, la investigación será una de sus actividades más importantes y, en este sentido, los socios continuarán teniendo la palabra con sus propuestas de investigación para beneficiarse de las ayudas económicas.

### Cauce de expresión

Además de lo señalado, nuestra labor será la de servir de cauce de expresión a los socios, haciéndonos eco de aquellas sugerencias que sean plausibles y dispongan del suficiente respaldo, tanto por su interés como por la existencia de recursos humanos y económicos, ya sea para celebrar seminarios o reuniones dentro del programa Oñatiko Unibertsitatea, o cualquier otra cuestión.

*Zientzia iharduera eta gizarte ekintza bateratzen dituen bidea indartzeko asmotan gaude Historia eta Geografia Sailean*

### Referente cultural

Uno de los puntos a potenciar especialmente es la presencia de la Sección en el tejido social, a fin de convertirla en un referente cultural ineludible, en el campo de la Historia-Geografía, con el que contar para construir País. Y ello desde una perspectiva netamente divulgadora y transmisora del conocimiento científico, organizando actividades de cara al común de la ciudadanía, buscando mayor presencia en los medios de comunicación...

En definitiva, saber conjugar el papel científico de la Sección con su papel social de proporcionar a la comunidad en general los elementos de juicio necesarios para contar con una opinión fundada y crítica que sirva de base para configurar el futuro.

## El-ko kideen liburuak

**"Histoire Générale du Pays Basque. Préhistoire - Époque Romaine - Moyen Âge". Manex Goyhenetche.**

Écrire ou plutôt réécrire une Histoire Générale du Pays Basque, voilà une entreprise difficile et de longue haleine. Mais, quelle histoire? Et pour quelle citoyenneté? L'interrogation est toujours d'actualité. L'auteur de ce premier tome nous livre ici le fruit de ses recherches, basées sur l'étude critique de nombreux documents. Le lecteur pourra ainsi avoir une perception plus réaliste des principaux événements de l'histoire de ce Pays. (Ed. Elkarlanean).



**"Tratamiento didáctico de las fuentes históricas. Las harineras en Navarra durante el primer tercio del siglo XX". Esther Guibert y Emilio Majuelo.**

La Historia no es algo dado, sino construido desde el presente. Los autores pretenden, partiendo de esta premisa, contribuir a que los alumnos elaboren estructuras intelectuales, habilidades..., rompiendo así con la idea de que la educación académica deba limitarse solamente a suministrar parcelas del saber histórico, y aportando al profesorado un modelo de investigación histórico didáctico para el tratamiento de las fuentes. (Grupo Edit. Universitario).



## Liburuak-Libros

*"El-ko kideen liburuak"* atalak Elkartearen Sailetako kideek Eusko Ikaskuntzatik kanpo argitaraturiko lanen berri ematen du hilabetero. Beraz, egile edo argitaletxe bakoitzarekin jarri beharra dute harremanetan aleak eskuratzeko edo haien inguruko informazioa jasotzeko interesa dutenek.

*La sección "El-ko kideen liburuak" da cuenta de los trabajos publicados en otras editoriales por miembros de las Secciones de EI-SEV. Los interesados en adquirir u obtener más información sobre estas publicaciones deberán, por tanto, ponerse en contacto con los respectivos autores o firmas editoras.*

## PRIX

•**Eusko Ikaskuntza et Ville de Bayonne.**

Les candidats pourront se présenter aux prix institués par Eusko Ikaskuntza et la Ville de Bayonne jusqu'au 30 octobre.

L'un des prix est double. D'une part, un prix de 20 000 francs sera attribué pour encourager l'auteur d'un ouvrage scientifique ou culturel récent, ou d'une thèse de doctorat. D'autre part, on honorera une personne ayant oeuvré pour la science en Iparralde, soit par son action, soit par ses ouvrages en lui remettant un objet souvenir d'une valeur de 2000 francs. L'autre type de prix récompensera les réalisateurs de vidéos documentaires dans deux catégories professionnelles ou amateurs. Les premiers prix seront de 10 000 francs et les second de 5000 f.

### Candidatures

Les propositions seront accompagnées du curriculum vitae du postulant. Pour tous renseignements complémentaires on doit adresser au bureau d'EI-SEB à Iparralde (Faculté. Bureau 316. 29-31 cours comte de Cabarrus. Bayonne).

ASMOZ TA JAKITEZ

**Argitaratzailea:** Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia. Internet: http://suse00.su.ehu.es. **Zuzendaria:** Josemari Velez de Mendizabal. **Zuzendari teknikoa:** Marta Guruziaga Reparaz. **Lege gordailua:** SS-1056/92. ISSN: 1133-9861. **Inprimategia:** Gertu (Oñati. Gipuzkoa). **Harpidetzak:** *Asmoz ta Jakitez* etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:

**Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak:** Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia (Gipuzkoa).Tlfnoa. (943) 310855. Faxa: (943) 213956. E-mail: ei-sev@sk.ehu.es Ordutegia: 9.00-14.00/ 16.00-19.00. **Arabako Bulegoa:** San Antonio, 41. 01005 Gasteiz. Tlfnoa.: (945) 231552. Faxa: (945) 148752. E-mail: idoia@encomix.es Ordut.: 8.00-14.00/ 16.00-18.00. **Bizkaiko Bulegoa:** Maria Diaz de Haro, 11-1. 48013 Bilbo. Tlfnoa.: (94) 4425287. Faxa: (94) 4414650. E-mail: rosa@encomix.es Ordut.: 10.00-14.00. **Nafarroako Bulegoa:** Garcia Castañon, 2-6.ezk. 31002 Iruñea. Tlfnoa.: (948) 222105. Faxa: (948) 211737. E-mail: marta@encomix.es Ordutegia: 9.00-14.00/ 16.00-19.00. **Iparraldeko Bulegoa:** Baionako Sailaskotako Fakultatea. Tlfnoa. 07. 33.559529299. Faxa. 07.33.559310518. E-mail: Eusko.Ikaskuntza@univ-pau.fr Ordutegia: 9.00-12.00/ 14.00-19.00.